

Benitatzell-go artisau arrantza.

Benitatzell-go historia eta ohiturak herriaren izena bezain zaharrak dira.

Eta olagarroak, bere etxeko itzalpean ezkutatu arren ezingo die ihesik egin.

Orain, itsas zolaren gainean dauka bere burua, orain jaiki eta dantzatzera doa, aurkitu ezingo balute bezala. Noraezean dabil, ehiza eta defentsa sena baino beste aginterik gabe, maskor eta kurkuiluak biltzearen zale, bere zuloaren sarrera apaintzeko.

Gordezulo estu eta ilunetan bizitzeko ohitura hori da olagarroaren artisau arrantza mendez mendez inspiratu duena.

Alkatruz edo *cadufo* deituriko teknika mediterraneoaren ekialdean sor zitekeen, izen biak jatorriz arabiarrek baitira; baliteke herri honi izena eman zioten talde berberak Iberiar Penintsulara ekarri izana. Eta oraingo ohiturak beste jatorri batzuetakoak izan arren, bere hareak landu izan dituen guztiak oroitzen ditu itsas hondoa.

Portu honetako itsas-gizonek ondo dakite zeramikazko ontzi hauek erabiltzen, eta bertako maizter iheskorrekin nola jokatu.

Ez da herri honetako gizonek gordetzen duten ohitura bakarra. Marina Alta eskualdeko itsasertzeko harkaitzak denbora luzez izan dira *pesqueres de la mort* deiturikoen eszenatokia: arrain gehiago dagoen inguru sakonagoetara hurbildu ahal izateko oinarritzko tresneria.

Kronikagileek diotenez, XX. mendearen hasieran ehun bat familiek jarduera horri esker bizirauten zuten. Esaten ez dutena da, zenbat gizon desagertu ziren harkaitz eta ur artean.

Arrantzatokirako ibilbidea, labarretan zehar, ez zuten inprobisatzen. Mutil bakoitzak bere aitarengandik ikasten zuen, eta haitz jakin batetik arrantzatze eskubidea jarauntsi, paper eta notariorik gabe izan arren, adostasunez, itsasoko ohiturek ematen duten indarrez, bere jendea bizi dadin bere bizitza arriskuan jartzen duenaren etikaz. Askotan, aita batek bere semeari utz ziezaiokeen bakarra *pesquera de la mort* bat zen, baina arrantzatu bitartean hiltzeko eskubide hori guztiak errespetatzen zuten.

Eta sarritan, aita hil zen tokira joaten zen semea. Halabehar horren aurka altxatzea ez zegoen bizitzak semeari eskainitako aukeren artean; labarrak ziren aukera bakarra.

Harkaitzari soldatua dirudien egitura hauskorak baltsa bitxi bat ematen du, ura beharrean airea zeharkatzeko balio duena.

Amildegian, ainguraz beharrean sokeaz finkaturiko bere txalupa gobernatzen du gizonak, eta arrantzatze sokateria bertatik jaurti. Dena dela, itsasoak eman edo kendu egingo dio bizitza arrantzaleari. Aldatzen ez dena arrantzalearen azala estaltzen duen gatza da, bultzatzen duen haizea eta berotzen duen eguzkia.

Segurtasun neurriak har daitezke, baina hau ez da adoregabeentzako lanbidea.

Gero, Atrarraya modu egokian botatzean datza dena, eta esfortzuak eta arriskuak mereziko dutela espero izatean, etekinak beti ere urriak izango direla jakinik.

Arrantzatokia jaso ondoren, etxerako bideari ekin beharko dio, kapazua bizkarrean. Hankak ertz irristakorrei arretatsu, eta aurpegia haizeari aurre egiteko prest. Eskuak maskurtuak, soka lodia eta zurubiak oratzeagatik. Gogoia betiereko itsasora eta Benitatzell-go gizon batzuek oraindik gordetzen dituzten ohiturei begira.